Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko abenduan

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2024ko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako eskaintzen kopurua 760 izan da, azaroan baino 340 gutxiago, eta 2023ko abenduan baino 107 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketa Administratiboko Unitatearen (KAU) lurralde historikoari dagokionez, 2024ko abenduan, 152 eskaintza erregistratu dira Araban, 330 Bizkaian, eta 278 Gipuzkoan. Araban eskaintzen %20 erregistratu dira, Bizkaian % 43,4 eta Gipuzkoan % 36,6.



Araban hilabete honetan eskaintzak %16 jaitsi dira (29 eskaintza gutxiago); Gipuzkoan % 32,7 murriztu dira (135 eskaintza gutxiago); eta Bizkaian jaitsiera % 34,8koa izan da (176 eskaintza gutxiago).

Iazko hilabete beraren aldean, hiru lurraldeetan gehitu dira eskaintzak. Araban, % 35,7 (+40 eskaintza); Gipuzkoan, eskaintza 1 gehiago (+%0,4); eta, azkenik, Bizkaian, 66 eskaintza gehiago erregistratu dira (+%25).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn eskaintza gehien erregistratu dituen profila zerbitzuetakoa da, 170 eskaintzarekin, eskaintza guztien % 22,4. Ondoren zientzietako-teknikarien profila dator, 162 eskaintzarekin eta % 21,3ko pisuarekin. Kualifikatu gabekoen eta laguntza-teknikarien okupazio-profilek ere pisu esanguratsua dute, % 10etik gora, eta erregistratutako eskaintzen bolumenaren ehunekoa % 15,4 eta % 13,4 da, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituzten profilak lehen sektoreko eta zuzendaritzako profilekoak dira, 2 eta 8 eskaintzarekin, hurrenez hurren.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, profil guztietako eskaintzek egin dute behera, zuzendarien eskaintzek izan ezik, % 100 egin baitute gora (4 eskaintza gehiago). Gehien jaitsi direnak, balio absolutuetan, laguntza-teknikarien eskaintzak dira, -89 eskaintzarekin eta % 46,6ko ehuneko-jaitsierarekin; balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena lehen sektoreko eskaintzetan gertatu da, % 87,5eko jaitsierarekin (-14 eskaintza).

Urte arteko saldoari dagokionez, igoera handiena, bai balio absolutu zein erlatiboetan, zerbitzuen eskaintzetan gertatu da: 61 eskaintza gehiago eta % 56ko igoera. Beste aldean, beherakadarik handiena, balio absolutuetan, industrian izan da, -17 eskaintzarekin eta % 18,7ko murrizketarekin; balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena lehen sektoreko eskaintzetan gertatu da, % 66,7ko murrizketarekin (6 eskaintzatik 2ra igaro da).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako eskaintzen % 46,3 mugagabeak dira, %53,6 aldi baterakoak eta gainerako % 0,1 merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoa altua da serie historikoarekin alderatuta, gainera, hil honetan, azaroarekin alderatuta 4 puntu igo da eta 2023ko abenduarekin alderatuta 8 puntu. Datu horiek lan-erreformaren ondoren eskaintza mugagabeen presentzia handiagoa izateko joera berresten dute.



Kontratu mugagabeen eskaintzak 352 izan dira, aurreko hilabetean baino 112 gutxiago (% 24,1eko beherakada). Aldi baterako eskaintzak 226tan jaitsi dira; guztira 407 izan dira, balio erlatiboetan %35,7ko murrizketa da. Azkenik, merkataritza izaerako eskaintza 1 egon da abenduan, azaroan baino 2 gutxiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 102tan igo dira (% 40,8ko igoera); aldi baterako eskaintzak, 7tan igo dira, % 1,8 gehiago. Azkenik, 2 merkataritza-eskaintza gutxiago erregistratu da urteko erreferentzian.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

Abenduan, erregistratutako eskaintzen % 73,8k, 0-6 hilabeteko esperientzia behar dute; 561 eskaintza guztira. Erregistratutako eskaintzen % 13k (91 guztira) 6-12 hilabeteko esperientzia behar dute. Ehuneko txikiagoak dituzte esperientzia handiagoa eskatzen duten eskaintzek, hala nola 3 eta 5 urte bitarteko aldiak, % 2,2ko pisuarekin (17 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago behar dituztenek; 9 eskaintza eta % 1,2ko pisuarekin.



Hileko bilakaeran, behera egin dute eskaintzek esperientzia gutxien eskatzen duten tarteetan. Jaitsierarik handiena, balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete bitartean behar dituzten eskaintzetan izan da, 295 eskaintza gutxiagorekin eta % 34,5eko jaitsiera erlatiboarekin; ehuneko balioetan, jaitsiera handiena 0 eta 6 hilabete bitartean behar dituzten eskaintzetan izan da (-%36,4 eta 52 eskaintza gutxiago). Aitzitik, eskaintzak gehien 5 urte baino gehiago behar dituzten eskaintzetan igo dira (+7, % 350eko hazkundea).

Urteko bilakaerari dagokionez, gora egin dute eskaintzek esperientzia-tarte guztietan, 3-5 urteko tartean izan ezik, 2 eskaintzatan jaitsi baitira (-%10,5). Guztizko balioetan, 0 eta 6 hilabete bitarteko esperientzia-tartearen igoera nabarmentzen da, 70 eskaintza gehiago egin baitira (+%14,3); balio erlatiboetan, 1 eta 3 urte bitarteko behar duten eskaintzen igoera nabarmentzen da, % 51,9 hazi baitira (+28 eskaintza).

Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko abenduan

Abenduan erregistratutako lan-eskaintzek batez beste 5 hilabeteko esperientzia eskatzen zuten.

• LANALDI MOTA

Aipatzekoa da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten lanaldia erregistratzerakoan, eskaintzen %12,9k bakarrik zehazten baitute (760 eskaintzetatik 98k). 98 eskaintza horietatik 62 lanaldi osokoak izan dira, eta gainerako 36ak lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari lanaldi osoko eskaintzak 52tan jaitsi dira abenduan, hau da, % 45,6 gutxiago. Era berean, lanaldi partzialeko 2 eskaintza gutxiago izan dira; beherakada erlatiboa % 5,3koa izan da.

Aurreko urteko hil beraren aldean, lanaldi osoko 22 eskaintza gutxiago izan dira (% 26,2ko beherakada). Aitzitik, lanaldi partzialeko eskaintzek gora egin dute: 22 eskaintza gehiago, eta % 157,1eko igoera erlatiboa izan da.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 8 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 9 gutxiago eta aurreko urtean baino 2 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle hau ere ez da beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 83,2k ez dute zehaztu gutxieneko prestakuntza-maila: 760 eskaintzetatik 228k soilik zehaztu dute maila akademiko minimoa.



228 eskaintza horietatik 57k unibertsitate-ikasketak eskatzen dituzte; ikasketa-maila hori da gehien eskatu dena. Ondoren, Lanbide Heziketako ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak datoz, abenduan 36 eskaintza erregistratu baitira. Atzetik derrigorrezko ikasketen eta batxilergoko profiletakoak datoz, 23 eta 12 eskaintzekin, hurrenez hurren.

Hil arteko erlazioan, eskaintzak behera egin dute ikasketa-profil guztietan, batxilergoko ikasketa-profilak izan ezik, zeinak kopurua mantendu baitute (12 eskaintza). Jaitsiera handiena, bai balio absolutuetan bai ehunekoetan, LHko ikasketen eskaintzetan gertatu da, 45 eskaintza gutxiagorekin eta %55,6ko beherakadarekin.

2023ko abenduarekin alderatuta, eskaintzek gehien egin dute behera LHko ikasketak eskatzen dituztenetan, bai balio absolutuetan bai ehunekoetan (18 eskaintza gutxiago, %33,3ko behera-

kada); aldiz, balio absolutuetan gehien igo direnak unibertsitate-ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak izan dira, 13 eskaintza gehiago (+%29,6), eta ehunekoetan batxilergoko eskaintzak (+%71,4, +5 eskaintza).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratu diren eskaintzen bolumenagatik gehien nabarmentzen den jarduera merkataritza da, 102 eskaintza baititu guztira, hau da, hileko eskaintza guztien % 13,4. Ondoren osasun jarduerak eta administrazio jarduerak daude, 85 eta 80 eskaintza erregistratu dira jarduera hauetan (eskaintza guztien % 11,2 eta % 10,5, hurrenez-hurren).

Aurreko hilabetearekin alderatuta, jarduera gehienetan eskaintzak jaitsi egin dira. Nabarmentzekoa da administrazio publikoaren (-99 eskaintza, -% 55,9) eta industriaren (-% 62, -% 52,5) eskaintzek izandako beherakada. Aitzitik, igoerarik handiena ostalaritzako eskaintzetan izan da, 8 eskaintza gehiagorekin (+%16,3).

Urte arteko saldoari dagokionez, jarduera gehienetan gehitu dira eskaintzak. Nabarmentzekoak dira administrazio-jardueren (+26 eskaintza, +%48,2) eta ostalaritzako eskentzen igoerak (+25, % 78,1eko igoera). Aitzitik, jaitsierarik handiena manufaktura-industrian izan da (-14 eskaintza, -% 20).